

5/03 IRIZPENA

Euskal Autonomia Erkidegoko lurra babesteko Lege Aurreproiektuaren gaineko Irizpena.

Bilbon, 2003ko irailaren 30ean

I.- AURREKARIAK

2003ko uztailaren 8an Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordera Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailaren idatzia heldu zitzaigun, non Euskal Autonomia Erkidegoko lurra babesteko Lege Aurreproiektuaren berri eman eta irizpen txostena egiteko eskatzen ziguten, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen ekainaren 27ko 9/1997 Legearen 3.1.a) artikuluan ezarrita dagoen bezala.

Lege aurreproiektu horren aurrekariak Euskal Herriko Ingurumena babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Legean daude, "Estatuaren ingurumen eta ekologia alorreko oinarritzko legedia legez garatzeko eta betearazteko Autonomia Estatutuaren 11.1. a) artikuluan ezarritako eskumenean legez babestuta dagoen legean, zeinek marko egonkorra eskaintzen duen, bere indarraldiaren espazio eta denborazko esparruan biltzen diren gobernu desberdinen politikak eta eragile pribatu desberdinen jarduerak sartzan direnekoa, bertan ezarritako xedeak betetzen lagundu behar dutelarik", ingurumen gaiari buruzko informazioa eskueran izatearen gaineko Zuzentzako 38/1995 Estatuko Legeen, Hondakinen 10/1998 Legearen eta kutsadurari aurrea hartze eta kontrol integratuen gaineko 16/2000 Legearen kalterik gabe.

Lege Aurreproiektua jaso eta berehala Batzordeko Osoko Bilkurako kide guztiei kopia bana bidali zitzaien, egoki irizten zieten proposamenak eta iritzia helarazteko eta proposamen eta iritzi horiek Batzorde Iraunkorrera edo dagokion Lan Batzordera bideratzeko, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Funtzionamenduaren Arautegian ezarrita dagoen bezala.

Irailaren 16an Ekonomia Garapeneko Batzordeak lan bilera egin zuen, Irizpen Aurreproiektuko lehenengo proposamen bat eztabaidatzeko, non horretarako finkatutako epean Osoko Bilkurak egindako ohararazpenak sartuak ziren. Batzorde horrek erabakitakoaren ostean, hara zein Irizpen Aurreproiektu aurkeztu zaion Euskadiko EGBren Osoko Bilkurari, 2003ko irailaren 30an ahobatez onartzen delarik.

II.- EDUKIA

Euskal Autonomia Erkidegoko lurra babesteko Lege Aurreproiektuaren testuak honelaxe osatuta dago: Zergatien azalpena, 49 artikulua Zazpi Goiburutan egituratuta, bi Xedapen Gehigarri, Xedapen Iragankor Bakarra, Baliogabetzeko Xedapen Bakarra, bi Amaierako Xedapen eta hiru Eranskin.

Hona hemen Lege Aurreproiektuaren egitura eta edukia:

Zergatien azalpena

Atariko Goiburua. Xedapen Orokorrak

1. artikulua.- Legearen xedea

2. artikulua.- Definizioak

3. artikulua. Hatsarreak

4. artikulua. Lurraren babesaren gaiko eskumenak gauzatzea

Lehenengo Goiburua. Lurrak dauzkatenen eta lurren jabeen betebeharrak

5. artikulua. Lurraren babesa

6. artikulua. Lurraren kalitatearen aldioroko txostenak

7. artikulua. Prebentzio eta defentsa neurriak

8. artikulua. Kontrol eta jarraipen neurriak

9. artikulua. Lurren jabe-aldaketa

10. artikulua. Informatzeko beharra

Bigarren Goiburua. Lurraren kalitatea zein den jakin eta kontrolatzeko bitartekoak

11. artikulua. Bitartekoak

12. artikulua. Arakatzeko ikerketa

13. artikulua. Arakatzeko ikerketaren txostena

14. artikulua. VIE-B Ebaluazioaren Balio Adierazleak Gainditzea

15. artikulua. Ikerketa xehatua

16. artikulua. Ikerketa xehatuaren txostena

Hirugarren Goiburua. Lurraren kalitatea adierazteko prozedura

17. artikulua. Lurraren kalitatearen adierazpena

18. artikulua. Aurretiazko kontsultak

19. artikulua. Prozeduraren hasiera

20. artikulua. Jendaurreko informazioa

21. artikulua. Lurraren kalitatea adierazten duen ebazpena

22. artikulua. Erregistroetan inskribatzea

23. artikulua. Lurraren kalitatea adierazten duen ebazpenaren edukia

24. artikulua. Jakinarazpena

25. artikulua. Tramitatzeko epea

26. artikulua. Administrazio prozeduraren arauak

Laugarren Goiburua. Lurraren kalitatearen adierazpenaren ondoreak

27. artikulua. Kutsatutzat jotako lurak berreskuratzeko neurriak

28. artikulua. Alteratutako lurak berreskuratzeko artikulak

29. artikulua. Lur kutsatu eta alteratuak berreskuratzeko neurriak hartzera behartutakoak

- 30. artikulua. Lur kutsatu eta aldatuen berreskuratzea kreditatzea
- 31. artikulua. Lur kutsatu edo aldatu bat berreskuratzearen ondoreak
- 32. artikulua. Baliagarritasun Publikoa

Bosgarren Goiburua. Lurren politikaren bitartekoak

- 33. artikulua. Lurra kutsa lezaketan jarduera edo instalazioak dituen lurren inbentarioa
- 34. artikulua. Lurren plana
- 35. artikulua. Lurren Kalitatearen Administrazioako Erregistroa
- 36. artikulua. Lurren ikerketa eta berreskuratze gaietan kreditatutako erakundeak
- 37. artikulua. Diru laguntzak
- 38. artikulua. Lurrak babesteko fondoa

Seigarren Goiburua. Diziplinazko araubidea

- 39. artikulua. Arau urraketak
- 40. artikulua. Oso arau urraketak larriak
- 41. artikulua. Arau urraketa larriak
- 42. artikulua. Arau Urraketa arinak
- 43. artikulua. Arau urraketan preskripzioa
- 44. artikulua. Graduazioa
- 45. artikulua. Zehapenak
- 46. artikulua. Badaezpadako neurrien ezohiko hartzea
- 47. artikulua. Eskumenak
- 48. artikulua. Zehapenen preskripzioa
- 49. artikulua. Gauzak lehengoratu beharra

Xedapen gehigarriak

Xedapen iragankor bakarra

Baliogabetzeko Xedapen bakarra

Amaierako xedapenak

- I. **eranskina:** Ebaluazioaren balio adierazleak
- II. **eranskina:** Lurra kutsa lezaketan jarduera eta instalazioak
- III. **eranskina:** Arriskuen analisiaren gutxieneko edukia

Zergatien azalpena

Atariko zergatien azalpenean lurren erabilpen desberdinak modu jasangarriak gara daitezzen gero eta kezka handiagoa dagoela diote, hau da, lurren ezaugarri fisiko, kimiko eta biologikoei eragin gabe. Eta kalterik egin eta kaltearen ondorioak

hurrengo belaunaldietara igaro daitezen eragotziko duten prebentzio, defentsa eta berreskuratze neurriak ezarri beharrez ere mintzo dira.

Lurrak jasaten dituzten mehatxu nagusien artean kutsadura da, bertan diotenez, ondorioz larrienak eragiten dituena, kutsatzaileak pilatzea lurraren funtzioei eragitera iritsi baitaiteke, lur kutsatua deritzona bilakaturik. Eta, aldi berean, EAEn bitarteko industrializazio prozesuak eta ingurumeneko eragina gutxitzeko orduan gizarte kontzientziarik ez izanak lur kutsatu ugari egon dadin ekarri duela ere badiote.

Azalpenen lerroak halako kontuek eta, horrekin batera, erabilpen berrirako lur egokia eskatzen duten ekonomia jardura berrien agerpenak lurraren kalitatearen aldagaia sar dadin ingurumena biziberritzeko premia azalatu dute, eta horrek lurraren politika eskatu eta azkenean horretan gauzatu da. Hona hemen politika horren adierazle nagusiak: Euskadiko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Legea; Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumeneko Programa Markoa (2002-2006) eta Garapen Jasangarrirako Euskadiko Ingurumen Estrategia, eta Euskal Autonomia Erkidegoko lurra babesteko eta ekintza antropikoen ondoriozko lurraren kutsadurari aurrea hartzeko xedea duena, lurralde esparru horretan dauden lur kutsatu eta aldatutuei aplikatzekoa zaien araubidea ere ezarri, ingurumena eta pertsonen osasuna zaintzera begira.

Azalpena burutzeko, xedapenen atala banatzen deneko zazpi goiburuetako bakoitzaren edukiaren laburpena egiten da.

Xedapenen atala

1. artikulua lege aurreproiektuaren xedea aurkezten du.

2. artikulua Honako kontzeptuak definitzen ditu, lege honen ondoretarako: lurra, lur kutsatua, lur aldatua, ebaluazioaren balio adierazleak, lurra kutsa lezaketan jardura eta instalazioak, arriskua, arrisku onargarria, arriskuen analisia, prebentzio neurriak, defentsa neurriak, berreskuratze neurriak, kontrol eta jarraipen neurriak eta eskuerako teknologiarik onena.

3. artikulua Administrazioek EAEko lurri dagokienez jarduteko zein hatsarrerri jarraituko dieten dio.

4. artikulua. Lurra babestearen alorreko eskumenak EAEko Erakunde Erkideen eta udalerrien artean nola banatuko diren aipatzen du.

5, 6, 7, 8, 9, eta 10. artikuluek lurrak dauzkaten eta lurren jabeen betebeharrak dituzte hizpide eta, hurrenez hurren, hauxe araupetzen dute: **5. artikulua** prebentzio, defentsa, berreskuratze, kontrol eta jarraipen neurrien berri izateari eta aplikatzeari buruzko betebeharrak eta eginbeharrak. **6. artikulua** EAEko ingurumen erakundeari jardura edo instalazio jakin batek ukitutako lurraren kalitatearen gaineko txostenak aldioro bidali beharra; **7. artikulua** ekintza kutsatzaileak ager daitezen saihesteko eta ekintza horien eragina ahalik eta gutxiena izan dadin behar diren prebentzio eta defentsa neurriak, baita neurriok ingurumeneko baimen integratuan sartzea ere. **8. artikulua** EAEko ingurumen erakundeak ezartzen dituen kontrol eta jarraipen neurriak hartu beharra, baita neurriok ingurumeneko baimen integratuan sartzea ere. Era berean, neurri horiek lurra kutsa lezaketan jardura edo instalaziorik izan ez arren iraganean halakoren batek edo alboko lurretatik etorritako ekintza kutsatzailearen batek eragin ahal izan dien lurri ere neurri horiek ezar lezikiekeela dio. **9. artikulua** dio jardura kutsatzaile jakin batzuek jasan dituzten edo jasaten ari diren lurrak eskualdatzekotan, eskritura publikoan horren berri jasoko dela eta Jabetzaren Erregistroan alboko ohar batean ere idatziko dela. **10. artikulua** dio lur kutsatuak dauzkatenek eta lur kutsatuen jabe izan baina lur horiek ez dauzkatenek inolako kutsadura zantzurik igartzean EAEko ingurumen erakundeari jakinarazi behar diotela.

11, 12, 13, 14, 15 eta 16. artikuluetan lurraren kalitatea zein den jakin eta kontrolatzeko bitartekoei buruzko alderdiak dituzte hizpide. Hara zer araupetzen duten, zehazki: **11. artikulua** bitartekoak ikerketak direla. **12. artikulua** zer den arakatzeko ikerketa bat eta zein den bere edukia. **13. artikulua** zein jaso beharko den arakatzeko ikerketaren txostenaren edukian. **14. artikulua** ea arakatzeko ikerketa batetik B- Ebaluazioaren Balio Adierazgarriak gaintzen dituen emaitza ondorioztatzen bada ikerketa xehatuari ekin beharko zaiola. **15. artikulua** zer den ikerketa xehatua, zer espero den hortik eta zein izango den edukia. **16. artikulua** ikerketa xehatuaren txostenaren zer jasoko den.

17, 18, 19, 20, 21, 22, 23, 24, 25, eta 26 artikuluek lurraren kalitatea adierazteko prozedura dute hizpide, eta ondokoa araupetzen dute, hurrenez hurren. **17. artikulua** ingurumen erakundeak zein ingurumariren aurrean adierazi behar duen lurraren kalitatea, lizentziak, baimenak eta jarduera jakin batzuk egitea gaitzen duten gainerako ebazpenak ematera begira. **18. artikulua** ingurumen erakundeak sustatzaileei kalitatearen adierazpenerako baldintzen berri emango die, baita prozedura abiarazteko eman beharreko informazioaren edukia eta norainokoaren berri ere. **19. artikulua** prozedura abiarazten duen prozesua. **20. artikulua** lurraren kalitatearen ikerlanen hedapen publikoa dakarten zergatiak. **21. artikulua** lurraren kalitatea adierazten duen ebazpena daraman mekanismoa. **22. artikulua** lur kutsatu baten adierazpena Lurraren Kalitatearen Administrazio Erregistroan inskribatuko dela, eta Jabetza Erregistroan alboko oharra idatziko zaiola. **23. artikulua** lurraren kalitatea adierazten duen ebazpenak zer esango duen. **24. artikulua** ebazpena interesatu guztiei jakinaraziko zaiela eta errekurtsioa jarri ahalko zaiola. **25. artikulua** tramitatze epeak ez dituela sei hilabeteak gaindituko. **26. artikulua** hirugarren goiburuan aurreikusten ez denerako urtarilaren 13ko 4/1999 Legeak aldarazitako Herri Administrazioen eta Administrazio Prozedura Erkidearen Araubide Juridikoaren gaineko azaroaren 26ko 30/92 Legean aurreikusitako prozeduraren arauak aplikatuko direla.

27, 28, 29, 30, 31 eta 32. artikuluek lurraren kalitatearen adierazpenak izango dituen ondoreak ditu hizpide eta honako gaiak jorratzen dituzte, hurrenez hurren. **27. artikulua** kutsatutzat jotako lurra berreskuratzeko neurriak, Euskal Herriko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Legearen aurreko eta osteko ekintza kutsatzaileak bereiztuz. **28. artikulua** ezaugarri kimikoak VIE-B baloreetatik gora aldaratuta dituzten lur alteratuak berreskuratzeko neurriak, betiere kutsadura eragin duen ekintza otsailaren 27ko 3/1998 Legea indarrean jarri ondoren gertatu bada. **29. artikulua** norik hartu behar dituen berreskuratzeko neurriak 3/1998 Legearen ostean kutsatu edo alteratutako lur kasuan, baita ezarritako berreskuratzeko neurri horiek ez betetzeak lituzkeen ondorioak ere (esaterako, hertsatzeko isunak). **30. artikulua** lurra berreskuratu dela kreditatzen duen horretarako eskuduna den erakundeak egindako txostena. **31. artikulua** lurraren berreskuratzeko kreditatuak izango dituen ondoreak eta ebazpena Lurraren Kalitatearen Administrazio Erregistroan inskribatzea eta Jabetza Erregistroko alboko oharra deuseztatzea. **32. artikulua** berreskuratutako lur baliagarritasun publikoa.

33, 34, 35, 36, 37 eta 38. artikuluek lurren politikaren bitartekoak dituzte hizpide. Zehazki, ondoko gaiak araupetzen dituzte, hurrenez hurren. **33. artikulua** kutsa lezaketan jarduera edo instalaziodun lurren inbentarioa, aldioro eguneratuko dena. **34. artikulua** jarraibide estrategikoak, jarduera ildoak eta praktikan jartzeko bitartekoak bilduko dituen Lurren Plana. **35. artikulua** Lurraren Kalitatearen Administrazio Erregistroa sortzea, baita horren edukia ere. **36. artikulua** Legeak aurreikusten dituen ikerkuntzak egiten dituzten erakundeek arautegietan ezarritako diren betekizunen eta prozedura baten arabera kreditatuko direla. **37. artikulua** berreskuratzeko neurriak hartzeko diru laguntzei eutsi ahal izateko aplikatzen diren baldintzak. **38. artikulua** lurra babesteko jarduerak finantzatzeko balioko duen fondoaren sorrera eta fondo hori iturritatik hornituko den.

39, 40, 41, 42, 43, 44, 45, 46, 47, 48 eta 49 artikuluek diziplinazko arautegia dute hizpide. Hara zer zehazten duten, hurrenez hurren. **39, 40, 41 eta 42. artikuluetan** arau urraketak definitzen dira, oso larri, larri eta arinetan sailkatuz. **43. artikulua** urraketok zein epetan preskribitzen duten dio. **44. artikulua** urraketan graduazioaren mekanismoa zein den. **45. artikulua** administrazioko urraketak eginez gero zer zehapen jarriko den. **46. artikulua** ezohiko modura eta zehapen espedientea abiarazi baino lehen ustezko erantzuleari badaezpadako neurri batzuk ezarri ahalko zaiola. **47. artikulua** nor den eskuduna oso urraketa larri, urraketa larri eta arinengatik jarritako zehapenen gaitan. **48. artikulua** oso urraketa larri, urraketa larri eta urraketa arinengatik jarritako zehapenak noiz preskribitzen duten. **49. artikulua** alteratutako egoera jatorrizkora lehengoratu behar duela, jasateko modukoak diren eta eskueran dauden aplikazioaren bidez, edo baliokidearengatik berreskuratutzat emanez.

Xedapen Gehigarriek Gobernuak zehapenen zenbatekoa eguneratzeko duen eskumena dute hizpide, baita Ebaluazioaren Balio Adierazgarriak (eta une hauetan sartuta ez dauden substantzia kutsatzaileentzako balio berriak sartzea ere), lurra kutsa lezaketan jarduera eta instalazioak eta arriskuen analisiaren edukia ere.

Xedapen Iragankor Bakarrak dio kutsa lezaketan jarduerak edo instalazioak jasan dituzten edo jasaten ari diren lurren kasuan, eta lege hau indarrean jartzen denetik hiru urteko epean beren jabeek edo dauzkatenek lurraren kalitatea arakatzeko ikerketak edo ikerketa xehatuak egin eta Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen erakundeak balioetsitako mende jarri eta

hortik lurra kutsatuta dagoela ondorioztatzen den kasuetan, 27. artikulua bigarren atalean eta 29. artikulua lehenengo eta bigarren atalean zehaztutako araubideari lotuko zaizkiola, erakunde horrek finkatzen dituen epeetan.

Baliogabetzeko Xedapen Bakarrak Lege honetan ezarritakoaren aurkakoak diren xedapen guztiak baliorik gabe lagatzen ditu.

Amaierako Xedapenetan Legea EAeko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hiru hilabetera indarrean jarriko dela esaten da, eta Gobernuak, legeak indarrean jarri eta urtebeteko epean, legea betearazteko behar diren arautegi eta arauak onetsiko dituela.

Azkenik, **Eranskinak** datoz. **I. eranskinean** ebaluazioaren balio adierazleak jasotzen dira; **II. eranskinean** lurra kutsa lezaketen jardueren eta instalazioak, eta **III. eranskinean** arriskuen analisiaren gutxienezko edukia.

III.- OHARTARAZPENAK

Ohartarazpen orokorrak

Europar Batzordearen 2002ko apirilaren 16ko Jakinarazpenean esaten den bezala, lurra oinarritzko bizi baliabidea eta, neurri handian, ez-berrigarria da, mehatxu desberdinen gero eta eragin handiagoa jasaten baitu: higadura, materia organikoa gutxitzea, kutsadura sakabanatu eta tokikoa, zigilatzea (etxebizitza, eraikuntza eta bestelako azpiegituren eraikuntzaren ondorioz), trinkotzea (makineria astuna erabiltzearen ondoriozko presio mekanikoak eragindakoa), bio aniztasunaren galera, gazitzea (sodio, magnesio eta potasio gatz gehiegi pilatzearen ondorioz), eta abar; eta prozesu horiek guztiak gizakiaren jardueraren eraginez sortu eta gero eta okerrago bilakatzen dira, eta baliteke, gainera, klima aldaketak lurraren egoera are txarrago bihurtzea.

Ondorioz, lurraren babesa gero eta garrantzitsuagoa da nazioarte mailan. Rioko Gailurrean, 1992an, parte hartu zuten estatuek garapen jasangarriaren kontzeptua hitzartu zuten, eta klima aldaketa, aniztasun biologiko eta basamortutze gaitan juridikoki lotesleak ziren konbentzioak itundu zituen. Gerora "Garapen jasangarriarantz" E.B.ren Ingurumen Alorreko Ekintzarako V. Programa Erkidea (1992-1999), eta basamortutzearen aurkako Nazio Batuen 1994ko Konbentzioa, lurraren degradazioa saihestu eta murrizteko, partzialki degradatutako lurra birgaitzeko eta basamortu bihurtutako lurra berreskuratzeko. Rioko Gailurra baino bost urte geroago, 1997an, New Yorken Río+5 Ezohiko Gailurra egin zuten, bost urte lehenago Rion finkatutako helburuak berrikusteko asmoz.

Marko berri honetan, Estatuaren ingurumen eta ekologia alorreko oinarritzko legedia legez garatzeko eta betearazteko Autonomia Estatutuaren 11.1. a) artikuluan ezarritako eskumenean legez babestuta, Eusko Legebiltzarrak 1987ko otsailaren 27an Euskal Herriko Ingurumena babesteko 3/1998 Legea onetsi zuen, eta jarraian Hondakinei buruzko Estatuko Legea, apirilaren 21eko 10/98 Legea aldarrikatu zen; bi legeen artikuluetan lurren babesaren alorreko erreferentzia esplizituak jasotzen dira.

Eskueran lur gutxi izatea eta lurraren gero eta higadura handiagoa eta emankortasun txikiagoa, ordea, garapen jasangarriko oso kontuan hartu beharreko mehatxu garrantzitsuak dira. Horregatik, Europar Batzordeak, E.B.ren Ingurumen Alorreko Ekintzarako VI. Programa Erkidean (2001-2010) lurra babesteko gai estrategia sartzan da, higadura, hondamena, kutsadura eta basamortutzeari aurrea hartu behar zaiela azpimarratzen duena, eta 2002an (Johannesburgon Munduko Río+10 Konferentzia izan zen urtea) lurra babesteari buruzko konpromiso politikoa sustatzea helburu duen Komunikazioa aurkeztu zuen.

Testuinguru berri honetan txertatzen dira Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumeneko Programa Markoa (2002-2006) eta Garapen Jasangarriko Ingurumeneko Euskal Estrategia, Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak 2002ko ekainaren 4an onetsitakoak, zeinetan, lehentasunen artean, EAeko lur kutsatuak garbitzea dagoen.

Egindako urratsak kontuan izan arren, hauxe izan behar dugu gogoan:

- biztanleria dentsitate altua,
- tradizioz kutsa lezaketen jardueretan espezializatutako industria alorraren pisu handia

- lur kutsatu asko dagoela, hartutako industrializazio ereduaren ondorio, izan ere
- eta bide eta etxe azpiegituren eraikuntza dinamika ikaragarri altua,

horren guztiaren ondorioz EAEko lurra baliabide bereziki urri bihurtu baita, eta, hartara, ezinbestekoa dirudi lurra babesteko araudiak garatzeari ekiteak.

Horregatik, Batzorde honen ustez, oso egokia da lurra babesteko lege bat izatea, lurraren gero eta erabilpen desberdin ugariago biltzen ari baita eta, horrek, arautu ezean, degradatzea ekar baitezake.

Batzorde honek, hala ere, beharrezkoa irizten dio Lege Aurreproiektuari hainbat ohartarazpen egiteari, legearen alderdi desberdinen gainean, besteak beste: Lege Aurreproiektuaren xedearen gainean, jarritako helburuen eta helburu horiek lortzeko proposatzen diren jardueren arteko koherentziaren gainean, eta lurraren kalitatea adierazteko behar den administrazio prozeduraren eraketaren gainean.

Lege aurreproiektuaren xedea

Lurra babesteko lege modura definitu arren, bere xedetik, esplizituki ondoren esango dugun bezala adierazten denetik

“...Euskal Autonomia Erkidegoko lurra babesteko eta ekintza antropikoen ondoriozko lurraren ezaugarri kimikoen alterazioari aurrea hartzeko xedea duena

Halaber, lurralde esparru horretan dauden lur kutsatu eta aldatuei aplikatzekoa zaien araubidea ere ezarri nahi du, ingurumena eta pertsonen osasuna zaintzera begira”

eta hori irakurri ondoren, ondorioztatzen da lege hau lurren kutsaduran zentratzen dela, degradazio eta suntsipen dinamiken multzoa eta, bereziki, EAEko kasuan mehatxurik handiena direnak osorik hartu barik.

Lehenik eta behin, ahaztu egiten du jarpen azidoak eragiten duen alterazio kimikoa, Eusko Jaurlaritzaren “2002ko Ingurumen Adierazleak” izeneko txostenak dioen bezala, eta herri honek iraganean jasaten zuen jarpen azido altua 1970etik hona murriztuz joan den arren, 1997tik aurrera gorakada nabarmena izan du, SO₂ eta, batez ere NO_x emisioen gehitzearengatik eta horrek 90. hamarkadan batez beste %2 gehitzea eragin du.

Bigarren, ez ditu lurraren degradazio/suntsitzerako oso faktore garrantzitsuak diren eta Eusko Jaurlaritzaren beraren bata bestearen osteko txostenetan behin eta berriro jaso direnak kontuan hartzen, hala nola, ondokoen ondorioz gertatzen diren erosioa eta zigilatzearen edo artifizial bihurtzearen ondoriozko suntsipena:

- ✓ pinuaren baso landaketetan pinua erabat erauzten duen ebaketaren teknikak erabiltzea (horrek hektarea bakoitzeko 50 tona ere galtzera baitarama) edo mahatsaren landaketa; “EAERako materialen guztirako beharrak” txostenean azpimarratutakoak
- ✓ eraikuntza jarduerak, bereziki gurea bezalako Erkidego batean, non biztanleria dentsitate altua nabarmena den eta, gainera, eraikuntza prozesu benetan altua jasaten ari den.

Europar Batzordearen “Lurra babesteko gai estrategiarantz” txostenak dio “ez dagoela degradazio prozesuan joera negatiboek atzera egiten ari diren itxuririk. Aitzitik, daukagun informazioak duela gutxioko hamarkadetan degradazio prozesu batzuk gehitu direla iradokitzen du”. Eta EAEko egoera are kezkarriagoa da garraio azpiegituren ondorioz zigilatutako lurraren portzentajea jada europar batasuneko batez bestekoaren bikoitza baita (%2,5 %1,2ren aldean), Eusko Jaurlaritzaren beraren datuek diotenez. Espainiar Estatuko hirietako eraikuntzaren erritmoa Alemania eta Frantziarena batera baino handiagoa da (140 milioi biztanle Estatuko 40 milioien aldean, eta EAE estatu mailako higiezinaren negozio horren boomeko partaide da. Eusko Jaurlaritzaren “2002ko Ingurumen Adierazleak” txostenaren arabera, 1996tik 1999ra bitartean etxebizitzek hartzen duten gainazala %20 gehitu da, eta ekonomia jarduerak hartutakoa %25.

Eta hirugarren, baina besteak bezain kezkarri, ez du beren beregi jorratzen landa lurra jasaten ari den suntsipen erritmo ikaragarria.

Jarritako helburuen eta helburu horiek lortzeko proposatzen diren jardueren arteko koherentzia

Zergatien azalpen honetan legearen xedea EAeko lurra babesteko politikaren oinarrian dauden hiru helburuak lortzea dela dio. Hona hemen:

1. lurretan alterazio berriak agertzeari aurrea hartzea
2. premiarik handieneko kasuei irtenbidea ematea eta, azkenik,
3. kutsatutako lur modura heredatutako pasiboa, egun premiazkoa ez dena, epe ertain edo luzera konpontzeko plangintza egitea.

Batzorde honen iritziz nolabaiteko inkoherentzia dago helburu horien eta azkeneko biak lortzeko pentsatutako jardueren artean.

Ez dugu argi ikusten Lege Aurreproiektuaren bigarren helburuari begirako egokitasuna, "premiarik handieneko kasuak" zer diren azaltzen ez duelako. Esan genezake 17. artikuluan jasotako kasu batzuk, eta bereziki a) eta b) atalak helburu horretako izan litezkeela, baina kontua da premiazko kasu horiek ez datozela esplizituki jasota. Ondorioz, ez daukagu helburuaren eta abiarazi beharreko jardueren arteko egokitasunik zehazteko modurik.

Era berean, ez ditugu hirugarren helburua lortzera bideratzen diren jarduerak urrunetik ere ikusten, hau da, "kutsatutako lur modura heredatutako pasiboa, egun premiazkoa ez dena, epe ertain edo luzera konpontzeko plangintza egitea" delakoa lortzea". 34. artikuluko "Lurren Planak" "jarraibide estrategikoak (...) jarduteko beharrak (...) bitarteko egokiak (...) definituko dituen (...) " plana sortzeko konpromisoa baino ez du jasotzen. Batzorde honek, ordea, uste du ez dagoela lur kutsatuak ezabatzeke plangintzarik egiterik harik eta 35. artikuluan aurreikusitako "Lurraren Kalitatearen Administrazio Erregistrorik" edukitzen ez den arte.

Lurraren kalitatea adierazteko behar den administrazio prozedura eratzea

Aurreproiektuak administrazio prozedura berria sortzen du, lur bat kutsatuta dagoen ala ez zehazteko eta, behar izatekotan, berreskuratzeko neurri egokiak ezartzeko.

Batzorde honen ustez prozedura berri horrek zenbait administrazio lizentzia inolako beharrik gabe geldiarazten ditu, eta horrek inolako beharrik gabeko berandutzeak ekar litezake eta industria askoren garapen normala nahastuko luke, ingurumenari inolako onik egin gabe, ingurumen alorreko administrazio kontuen butxadura areagotuz eta ingurumen baimenak lortzea are zailago bihurtuz.

Laburbilduz, gure ikuspegitik, Lege Aurreproiektuak gabeziak dauzka eta, beste ezer baino, lurra isurien ondoriozko kutsadura kimikotik babesteko legea dela ematen du, horrekin fenomeno horren garrantzia gutxietsi nahi ez dun arren. Horregatik, eta degradazio ez-kimikoaren eta lurraren suntsipenaren prozesuen garrantzia kontuan hartuta, komeniko litzateke

- Batzorde honek aipatu dituen lurraren suntsipenaren beste kasu batzuk kontuan hartzea, eta helburuen eta abiarazi beharreko jardueren arteko egokitasuna zenbaterainokoa den berrikustea, baita lurraren kalitatea adierazteko behar den administrazio prozedura ere eratzea, eta ondoren ageri diren berariazko ohartarazpenetan aipatzen diren alderdien multzoa ere bai.
- edo bestela lurra babesteko lege hau beste batekin edo aipatutako faktoreen eragina moztera bideratuko den plan baten bidez osatzea.

Berariazko ohartarazpenak**ATARIKO GOIBURUA.- Xedapen orokorrak****2. artikulua. Definizioak****2. atala: Lur kutsatua**

Batzorde honen iritziz, aurreproiektuak planteatzen duen lur kutsatuaren ondorengo definizio hau

“jatorri antropikoaren ondorioz bere ezaugarri kimikoetan alterazioen bat daukan edozein lur, lurraren oraingo erabilpenerako edo, erabilpena aldatzekotan, gerorako erabilpenerako pertsonen osasunerako edo ingurumenerako arriskua onartezina delako edo izan daitekeelako ...”

ez dator bat Euskal Ingurumena babesteko Lege Orokorrean ezarritakoarekin (80.1 artikulua)

“Lur kutsatuak, EAEko ingurumen erakundeak halakotzat jotakoak izanik, osasun publikorako edo ingurumenerako arrisku onartezina direlako, beren ezaugarri kimikoen alterazioa eta beren betekizunekin bateraezina dena dutenak dira.”

eta zabalegia da, zeren proiektuaren arabera, lur kutsatua beren betekizunen alterazioa duena, oraingo erabilpenerako arrisku onartezina ekartzearainokoa, edo halakoa izan litekeena, erabilpena aldatzekotan.

Definizio honek berak dioena ukatzen du, zeren oraingo erabilpenaz gain etorkizunean izan litekeen beste edozein erabilpen kontuan eduki behar bada, orduan oraingo erabilpena zein den berdin baita. Hori proiektuaren gainerakoarekin kontraesanean dago, gainera, eta bereziki arakatzeko ikerketaren metodologiarekin. Bestalde, lur baten erabilpenaren aldaketa bada lurraren kalitatearen adierazpenaren prozedura abiarazteko suposamenduetako bat, une horretan lurra erabilpen berri horri dagokionez duen arriskua baloratu beharko delako da, hain zuzen.

Gure ustez, beraz, lur kutsatuaren kontzeptua Euskal Herriko Ingurumena Babesteko legeak jada ezarritakoarekin bat etorri behar da, lur batek bere oraingo erabilpenari edo, erabilpen hori aldatzekotan aurreikusten zaion erabilpenari dagokienez dituen arriskuen gainean hitz eginez.

LEHENENGO GOIBURUA.- Lurra dauzkatenen eta lurren jabeen betebeharrak**7. artikulua. Prebentzio eta defentsa neurriak**

Batzorde honen ustez lurren kutsadura saihestera bideratutako prebentzio neurriak izateak ezin du Administrazioa kutsa lezaketen jardura edo instalazioen titularrei edozein neurri exijitzera eraman.

Horregatik, uste dugu 7.4 artikulua idazketari ñabarduraren bat sartuko beharko litzaiokeela, Administrazioak neurri egokiak har daitezela exijitu ahalko duela esanez, betiere lurra lurraren alterazioa edo kutsadura eragiten duten substantzia kutsatzaileak egon daitezela saihesteko beharrezkoa bada, arau hau 7.1 artikulua argi eta garbi lotuz.

8. artikulua. Kontrol eta jarraipen neurriak

Batzorde honen ustez Administrazioak lurra dauzkatenei eta lurren jabeen kontrol eta jarraipen neurriak exijitzeko (8.1 artikulua), neurri horiek lur horien ondorioz pertsonen osasunerako edo ingurumenerako arriskuak daudelako justifikatuta egon beharko dute (lur kutsatuak izan behar dute, alegia), edo gutxienez, substantzia kutsatzaileen eragina jasateko arriskuak egon beharko dute.

HIRUGARREN GOIBURUA.-LURRAREN KALITATEA ADIERAZTEKO PROZEDURA

17. artikulua. Lurraren kalitatearen adierazpena eta 25. artikulua, Tramitazio epea

Aurreproiektuaren arabera, kutsa lezakeen jardueraren bat jasaten ari den edo jasan duen lur batean instalazio bat jarri edo jarduera bat hedatzeko (1.a atala), edo egun ez-aktibo dauden eta kutsa lezakeen jarduera edo instalaziorik jasan duten tokietan lur mugimenduzko proiektuak gauzatzeko (1.b atala), aurretiaz lurraren kalitatea adierazteko prozedura abiarazi beharko da, eta horrek bien bitartean ez da instalazioa jarri edo hedatzeko behar diren bestelako edozein lizentzia edo baimena eragotziko du (17.2 artikulua). Eta gainera, lurraren kalitatea adierazteko prozedura denboran sei hilabetera arte ere luza liteke (25. artikulua).

Batzorde honek ulertzen du etenaldi horren helburua zein den, eta 17.1.a eta 17.1.b. suposamenduak gauzatzekotan, pertsonen osasunerako edo ingurumeneko arriskutsua izan litekeen kasuetan aplikatu beharko litzatekeela ere bai. Oro har aplikatzeak, ordea, ingurumen kontuen administrazioko tramitazio konplexuari atzerapen handiagoak ekar diezazkioke.

Begi-bistako arazo praktiko hori konpontzeko, ingurumenari inolako kalterik egin gabe, oro har etetea erakunde kreditatuak egin beharko duen arakatzeko ikerketaren emaitza ezagutu arte soilik ezar liteke. Aurreproiektuaren arabera, emaitza horretan B Ebaluazioaren Balio Adierazleak gainditzen direnean soilik, eta hori balio horiek gainditu ezean lurraren kalitatearen adierazpena negatiboa izango dela esatea bezala da. Horregatik, gure ustez:

- VIE-B ebaluazio balio adierazleak gainditzen ez badira, beharrezkoak diren baimenak eman litezke, instalazioak edo lurren mugimenduaren proiektua burutzen duenak ondoren ziurrenik etorriko ez den lur kutsatu edo aldatuaren adierazpenaren ondorioak bere gain hartu beharko litzatekeelarik.
- Balio horiek gainditzekotan, ordea, zentzuzkoa dirudi prozeduraren emaitzaren zain egoteak eta gainerako baimenak ematea eteteak.

Hartara, lur horietan ezartzeko edo beren instalazioak hedatzeko nolabaiteko premia duten enpresak arakatzeko ikerketa finkatzen den epean egingo dien enpresa kreditatuta bilatzearen mende egongo dira, eta ez administrazio prozedura konplexu baten sareetan, hori guztia ingurumeneko edo pertsonen osasunerako inolako arriskurik gabe.

24. artikulua. Jakinarazpena

Guk uste dugu interesgarria litzatekeela jakinarazpen mekanismoa zein izango den argitzea, eta espero dugu jakinarazpen mekanismo horrek ez duela administrazioaren isiltasuna ezezkotzat joko.

LAUGARREN GOIBURUA.- LURRAREN KALITATEAREN ADIERAZPENAREN ONDOREAK

27. artikulua. Kutsatutzat jotako lurak berreskuratzeko neurriak

3. atala.

“Ekintza kutsatzailea otsailaren 27ko 3/1998 Legea indarrean jarri baino lehenago gertatu balitz, kutsatutzat jotako lur bat berreskuratzeko neurrien helburua lurra lehengoratzeko, edo lehenago nola zegoen jakin ezean, gutxienez B Ebaluazioaren Balio Adierazleen berdinak diren lurraren kalitate estandar batzuetaraino iristeko baldintzak berrezartzea izango da, horretarako jasateko moduko kostean eskueran dagoen teknologiarik onenaz baliatuz”

Horrela idatzita bi arazo gerta daitezke, bata teknikoa eta bestea gramatikazkoa . Hona hemen:

- “lehengoratzea” dioenean ez du zehaztasun handirik ematea. Lehengoratzeak lurra jatorrizko egoerara itzuli behar dela esan nahi badu, hori teknikoki ezinezkoa izango da kasu askotan.

Hona hemen Batzorde honek proposatzen duen idazketa:

*“...kutsatuzat jotako lur bat berreskuratzeko neurrien helburua **lurra ekintza kutsatzailea gertatu baino juxtu lehenagoko egoerara lehengoratzeko**, edo lehenago nola zegoen jakin ezean, gutxienez B Ebaluazioaren Balio Adierazleen berdinak diren lurraren kalitate estandar batzuetaraino iristeko baldintzak berrezartzea izango da, horretarako jasateko moduko kostean eskueran dagoen teknologiarik onenaz baliatuz”.*

- Bestalde, zalantza daukagu atala ixten duen etenarekin, pentsa baitaiteke B ebaluazioko balio adierazleen berdinak diren estandarrak iristeaz soilik ari dela. Bertan jasateko moduko kostean eskueran dagoen teknologiarik onenaz baliatzeaz” mintzo da, eta hori, gure ustez, lurra jatorrizko bere egoerara itzultzeko kasuari ere aplikatu behar zaio, esapide hori nolana ulertuta ere.

31. artikulua. Lur kutsatu edo aldatu bat berreskuratzearen ondoreak

3. atala.

Jabetza erregistroko alboko oharra ezereztatzeari dagokionez, Batzorde honen ustez, lur batek kutsatuta egoteari utzi diola dioen Administrazio eskudunaren ebazpenik dagoenean, badirudi ez daukala zentzurik Administrazioak izan behar izateak Jabetza Erregistroari hori ezabatzea eskatuko diona, beste edozein interesatuk ere egin bailezake hori, ezabatzea premiazkoa den kasuetan ezereztatze hori arindu ahal izateko.

BOSGARREN GOIBURUA.-LURREN POLITIKAREN BITARTEKOAK

34. artikulua. Lurren plana

Euskadiko EGBk uste du 1. atalaren idazketa aldatu beharko litzatekeela, Lurren plana onesteko beharko den adostasun mailan Batzorde honen eginkizuna kontuan har dadin modura.

36. artikulua. Lurren ikerketa eta berreskuratze gaietan kreditatutako erakundeak

Berreskuratzeko neurriak hartzea, baita behar diren ikerketak prestatzea ere (36.a artikulua) erakunde kreditatuentzat gordetako gaitasuna da. Erakunde horiek egoteko, ordea, Administrazioak kreditatzea lortzeko behar diren baldintzak eta prozedura arautegiz ezarri beharko ditu (36.2. artikulua).

Aurreproiektua indarrean legearen xedapenak bete ahalko dituzten erakunderik egon baino lehenago jarriko denez, eta horrek kreditatzen diren lehenengo erakundeek merkatua erraz guztiz berengana lezaketelako hasieran arazoak eragin litzakeenez, guk uste dugu arautegizko xedapen horiek martxan jartzea azkartu beharko dela.

IV.- ONDORIOAK

Euskadiko EGBk egoki irizten dio Bidaiarien Errepideko Garraioaren Lege Aurreproiektua izapidetzeari baina kontsultarako batzorde honek egin dituen ohartarazpenak kontuan hartuta.

Bilbon, 2003ko irailaren 30ean

O.I. Lehendakaria
Rafael Puntonet del Río

Idazkari Nagusia
Manuel Aranburu Olaetxea